

ENEKO ANDUEZAREKIN BILERA

Atzo, urriaren 3ean, *Guggenheim Urdaibai Stop* herri plataformak Euskadiko Alderdi Sozialistako idazkari nagusia den Eneko Anduezarekin bilera izan zuen. Eskertuta gaude, Plataformak eskatutako bilerari baietza eman izanaz.

Herri plataforma zabal eta anitza garen aldetik, asko dira *Guggenheim Urdaibai* proiektuaren inguruan herritarrek helarazten dizkiguten kezka eta beldurrak. Era berean, hainbat izan dira proiektu horren inguruan zenbait administrazioetako ordezkarien ahotan entzun ditugun adierazpenak. Arduratsu jokatzeko eta proiektu horren inguruan ahalik eta informazio zehatzena eskuratzeko intentzioarekin joan gara bilerara.

Gure helburuak zehatzak izan dira. Alde batetik, **plataformaren aurkezpen laburra** egitea, gure helburua zehaztuz: *Guggenheim Urdaibai* proiektua, behin betiko, alboratzea. Bestetik, proiektu honek sortzen dizkigun **kezka eta galdera guztiak mahai gainean jartzea**. Eta amaitzeko, **Anduezak** ordezkatzeko duen alderdiak proiektu **honen inguruan duen iritzia ezagutzea**.

Kezkak horrela labur daitezke: gobernantza estila inositiboa; Biosfera Erreserben xedearen kontra aritzea; proiektua ez izatea inongo diagnostikoaren emaitza; proiektuaren existentzia eza; *Natura 2000* sareko Babes Berezikiko Eremuan planifikatzea, zaurgarritasun handieneko eremuan; estuarioak erakusten dituen saturazio-ebidentziak; Planetaren mugak aintzat ez hartzea; diru publikoa helburu pribatuetarako xahutzea; museoak eskualdeko beharrianentzat erantzuna ez izatea; Biosfera Erreserbaren etorkizun osasuntsua proiektuarekin lotuz herritarrek manipulatzeko; prozesu parte hartzaile zuritzaileak abiatzea; eta bertoko kulturaren galera bultzatzea.

Kasu honetan, orokorrak diren kezka guzti hauei, alderdi sozialistak publikoki erakutsi duen anbiguateak sortzen digun ardura ere gehitu beharrean gaude.

Azken puntu honen inguruan, anitzak izan dira Euskadiko Sozialisten ordezkarien ahotik, proiektu honen inguruan entzun ditugun iritzia: Eskualde mailan, proiektuaren parte den Muruetako egoitza izango litzatekeenaren kontra agertuz, edota informazio faltaren aurrean gardentasuna eskatuz eta eskainiz. Bestalde, parte diren zenbait administrazioetatik, proiektua bideragarria egiteko beharrezko diren urrats administrazioei babesa ere erakutsi die, eta Euskal Gobernua eratzeko, *Guggenheim Urdaibai* proiektua jasotzen duen gobernu akordioa ere sinatu dute. Herritarrontzat, zaila da egoera honen aurrean, egitasmo honen inguruan alderdiaren jarrera argia identifikatzea.

Proiektuaren ezezagutza adierazi digute, informazio falta. Beharrezko ikusten dute proiektua ezagutzea, balorazio bat egiteko eta euren posizioa zehazteko; baina bitartean, aurrerapausoak ematearen alde agertzen dira. Publikoki esan bezala, proiektuaren dimentsioak ezagutu behar dituzte, eta berau legeekin errespetuzkoa izan beharko da. Espainiako Gobernutik eskuratutako 40M €-ak testuinguru honetan sartzen dituzte: Biosfera Erreserbaren errehabilitazioan, leheneratzean. Informazioa eskuratzeko jatorria *Guggenheim Fundazioan* kokatzen dute eta Vidarteren ondorengoa izango denarekin bilera izateko zain daude.

Plataformaren iritziz, informazioaren iturria *Guggenheim Fundazioa* izatea, guztiz kezkarria da, entitate pribatuaren esku uzten delako eskualde baten etorkizuna. Fundazio honen parte diren patronoak dituzten gurariak eta herritarrok ditugun beharrak, ez baitute, segurunik, bat egingo. Eta bitartean aurrerapausoak ematearekin ados egoteak ere kezka handiak sortzen dizkigu: urrats hauek, HAPOen aldaketak, Kosta legearen jabetza zormenaren murrizketa, *Lekuko Plan Partzialen* moldaketak, edota *Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailearen* moldaketak, helburu bakarra baitute eta berau ezta herritarraren hobe beharra, museo bat eraikitzea baizik.

Ardura eta zuzentza eskatu zaie kontu hauekin, nahiz eta proiektua ez ezagutu, ekintza guzti hauek publikoak baitira. Gure ustez, momentu honetan administrazio publikoak izanik proiektua bultzatzen dutenak eta diru publikoa xahutzen dabilzanak proiektua bideragarri egiteko, beraiei eskatu behar zaie proiektu honen inguruko informazioa eta erantzukizuna.

Alderdi bezala, lehenetsuna ematen diote eskualdearen beharrei erantzuneko dien plan integral bati eta puntu honetan bat gatz.

Informazio zehatza eskuratzeko dutenean, plataformarekin konpartitzeko prestutasuna ere erakutsi dute, eta hau eskertzekoa da.

Bilera honek ere ez du proiektu horren inguruan dugun ideia aldatu, ezta gutxiago ere. Gaur konbentzituago gaude, proiektu hori inongo diagnostiko barik proposatutako okurrentzia bat besterik ez dela, eta lege eta araudiak tolestu eta moldatuz, urratsez urrats bideragarri egiten saiatzen diren bitartean, desinformazioa dela nagusi...edo behintzat, hori da pentsatzea nahi dutena.